

## SANANDRESAK



ikastetxeetan



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Koldo Mitxelena eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri  
eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki  
artxiboa eta Koldo Mitxelena

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Zein da azkena arrainen  
lasterketa batean?

Del-fina

**Akane Martínez**

Gizon bat armairu handi bat  
zazpigarren pisura igotzen ari da  
bera bakarrik. 5. pisuan  
zegoenean bizilagun bat irten  
eta esan zion:

- *Lagunduko dizut, Iñaki?*

- *Ez, ez, lasai, semea dago*

*armairu barruan pertsak eusten.*

**Jule Gisasola**

Andereñoak azterketa jarri die  
eta Jaimitok aldamenekoari  
kopiatu dio.

- *Jaimito, kopiatu egin duzu!*

-andereñoak.

- *Nola dakizu hori?* -erantzun

dio Jaimitok.

- *Zure ondokoak galderetako bat  
ez zekiela jarri du eta zuk: "Nik  
ere ez".*

**Naroa Murillo**

Emakume bat hain zen  
alfer-alfer-alferra, suhiltzaileei  
deitu ziela argia itzaltzeko.

**Leire Ayala**



Zer esaten du txakur batek  
gabonetako zuhaitz bat ikusten  
duenean?

Azkenik jarri dute argia  
komunean!

**Ana Oyarzabal**

Nola esaten diote Txinan  
xaboirik ez duenari?  
Sin Chan Pu

**Iker Uribe**

Jaimitoren gelan andereñoak:

- *Jaimito, zenbat da 2x1?*

- *Eskaintza.*

- *Ea, saiatu zaitetz berriro:*

*zenbat da 3x1?*

- *Super eskaintza!*

**Miren Ferrero**

# ikastetxeetako **BERRIAK**

Kaixo lagunok! Oporrak atzean utzita gogoarekin ekin diogu **LA SALLE**n 2012-13ko ikasturteari eta hemen gaude berriz ere zuekin gure esperientziak konpartitzeko prest!

Alde batetik, irailean, 1. eta 2. mailakoak Arraten eta San Pedron egon ziren mendi buelta egiten, 3. ziklokoak berriz, oinez igo ziren Arratera. 3. eta 4. mailakoak Donostiako zinemaldiko izarren artean ibili ziren, "Aita ni zonbia naiz" pelikula ikusten. Eta bestetik, Haur Hezkuntzako 5 urtekoak Barrian egun bi pasa zituzten urrian. Lehenengo ziklokoak bi astetako igeriketa-ikastaroak izan dituzte polikiroldegian eta diploma eta guzti jaso dute!


Proyde Proegako (gure ikastetxeko GKE) astea ere ospatu dugu eta ekintza mordoa egin genituen, Argentinako lagunei laguntzeko helburuarekin! Amaitzeko, azaroaren amaieran, 4. mailakoak Lurraskara joan ziren ingurugiroa aztertzen duen eskola batera. Ekin gogor eta hurrengora arte!



Aurreko urtean Ipurterre lehiaketan irabazle izandako **Jone Olabarrik ITURBURU**ra bisita egin digu. 6. mailako talde biek in solasalditxo bat egin zuen urrian. Saritua izan zen idazlana euskararen onuren inguruan zenez, gai hortaz eztabaidatu zuen neska-mutilekin. Iritzi asko egon ziren: batzuk aberasgarriak, beste batzuk ez hainbeste, baina ikasleen ideiak eta pentsakera entzun ziren. Askok poztu ginen gure eskolako ikasle ohia den Jone Olabarrik eskaini zigun ikuspuntua entzuten.



- 1 GORRIA
- 2 MARROIA
- 3 HORIA
- 4 MOREA
- 5 URDINA
- 6 GRISA
- 7 BERDEA
- 8 LARROSA

MARGOTU



NAZRAWIT L.  
AMAIA A.  
4.B

9 DESBERDINTASUNAK




IMANE  
MARCOS

LUCIA

(4.B)

# GURUTZEGRAMA



## Horizontalak:

- 1- Aitaren emaztea. Ile asko du eta oihaneko erregea da.
- 2- Belarri luzeak dituen ugaztuna. Esnez egindako elikagaia, saguei asko gustatzen zaiena.
- 3- Entzuten ez duena.
- 4- Lur zati altua, gure herriaren inguruan asko daude.
- 5- Oso txikia den animalia, gazta asko gustatzen zaiona.

## Bertikalak:

- 1- Zortzi hanka dituen animalia txikia. Sarea egiten du intsektuak harrapatzeko.
- 2- Astearen bigarren eguna.
- 3- Marraduna da katuaren antzekoa, baina askoz handiagoa eta oihanean bizi da.
- 4- Urtearen bukaeran ospatzen diren jaiak. Olentzeroa etortzen da.
- 5- Eibartik pasatzen den ibaia. Putzuetan bizi da eta berdea izaten da.
- 6- Mendietan edo izoztutako tokietan bizi den animalia. Oso handi da eta marroia edo zuria izaten da.
- 7- Europako herrialdea. Roma da bere hiriburua.

Laura Lahidalga - Alaitz Ciarsolo

## EUSKAL HERRIKO PROBINTZIAK

Bila itzazu hizki saldan Euskal Herriko probintzien izenak:

- Gipuzkoa
- Bizkaia
- Araba
- Nafarroa
- Lapurdi
- Nafarroa Behera
- Zuberoa

M	G	B	N	A	F	A	R	R	O	A	A
H	J	I	D	R	U	P	A	L	Y	R	T
Z	I	Z	P	J	Q	L	S	G	A	E	I
A	V	K	Q	U	T	Ñ	S	B	T	Z	G
O	B	A	D	P	Z	W	A	X	V	A	A
R	G	I	E	J	X	K	E	C	R	G	R
E	F	A	M	F	Y	G	O	B	F	C	E
B	Q	Y	U	K	G	I	U	A	G	D	H
U	K	E	S	E	T	G	H	Q	V	H	E
Z	K	X	N	A	F	A	R	R	O	A	B

# SAN ANDRES

**K**onturatu barik ia-ia ailegatu ziztaizkigun Sanandresak eta konturatu gabe joan ere joan zaizkigu.

Datorren urtera arte agur esan diogu Eibarko patroiarri. Baina ziur nago zoragarri pasatu duzuela, ezta? Ikusi besterik ez dago zein azoka zoragarriak egin dituzuen ikastetxeetan eta zeinen ondo ibili zireneten San Andres egunak eskaini zizkigun ekitaldi guztietan.

San Andres bezperatan azoka zoragarriak egin zenituzten ikastetxeetan. Zintzo zintzo eraman zenituzten eskolara irakasleek eskatutako gauzak: eztia, gazta, erroskilak, porruak, ogia, berakatzia, txorizoa... eta argazkietan ikusten duzuen moduan lan polita egin duzue aurten ere.

Kantatu ere baikain kantatu duzue. Eztarriak urratzeraino! Zulotxo batetik be-



# gure patroi handia

gira egon nintzen eta eskolan egindako entseguak balio izan dute benetan!

Eta zer kontatzen didazue azokari buruz? Zein ederra etorri zaigun aurten ere, zenbat barazki, fruta, animalia... Eta Kezkarekin ere haur eta heldu mordoak egin zenuten dantza.

Horrez gainera, San Andres bertso-

paper lehiaketako sariak ere banatu zituen ...eta kitto!-k eta, gazteenen mailan, lehen eta bigarren sariak Juan Antonio Mogel ikastolako bi ikaslek eskuratu dituzte, June Eguren eta Iker Arginzoniz, zorianak bikote!

Orain Sanandresak amaitu eta Gabonak ditugu hortxe bertan!



Nagusixen eta umien artian  
desberdintasun haundixak  
izaten dirala pentsatzen dogu,  
baiña zer gertauko zan galdera  
bardiña egitten badetsagu  
nagusixari eta umiari?  
Horrenbesteko aldia  
egongo ei da?

## **Zelan bizi dozuz / zenduazen Sanandresak?**

### **ARRATE RUBIO, 7 URTE**

Gustatzen jata San Andres eguna; animaliak ikustia  
gustatzen jata gehixen. Gaztai asko egoten da eta  
aprobetxatzen dot danak probatzeko.



### **MERTXE GARCIA, 41 URTE**

Txikittan ez dot gogoratzen zelan pasatzen genduan  
Sanandresetan, eskolan ez genduala ospatzen  
esango neunke. Gaur egunian demaseko jaixa da,  
oso garrantzitsua herrixarendako. Lana Eibartik  
kanpo egin izan dotenian, beti gorde dot jai egunen  
bat Sanandresak bihar dan moduan ospatzeko.

### **NAIA ORTIZ DE VILLALBA, 7 URTE**

Bai, pixka bat gustatzen jata. Basarritar janzten  
gara, eskolan, urte birik behiñ. Azoka propixua  
egitten dogu. Azokan gaiñera gazta asko egoten  
da eta gero eta fuertiagua izan gaztaia hobe,  
ahal doten dana probatzen dot.



### **CARMEN DURAN, 42 URTE**

Gaur egunian umiekin urtetzen gara San Andres  
egunian, azoka ikusi eta abar. Naiaren nebarekin  
juaten garanez eta gaztaia asko gustatzen jakonez,  
beti pasatzen dogu denbora asko gazta lekuetan.  
Txikittan zeozer gogoratzen dot, baiña bereziki  
gogoratzen dot nerabezaroan gaua asko bizi izan  
genduala, demaseko jaixa zan.





## **Gabonetan jostailu hezigarriak erosteko hainbat gomendio**

Umeak Olentzerori gutuna idazten hasteko irrikitan daude eta gu beste behin ere dardaka ia gure poltsikoa nola geldituko ote den. Gainera urterok zalantza sortzen zaigu: nola asmatu erosten dugun jostailuarekin? Egokia eta hezigarria izatea nahi dugu eta, eskatzen hasita, baita lehenengo bi egunak pasatutakoan armarioan ahaztuta geldituko ez dena ere. Nola asmatu?

- Tebistan agertzen diren iragarkiei ez egin kaso larregi, tebistan agertzearren ez dira besteak baino hobeak.
- Umearen gustu eta zaletasunak kontutan izan.
- Gai berdinen gaineko bi opari egiten badizkiozu umearen interesa piztuko duzu gai horren inguruan (esate baterako dinosaurioak, planetak...)
- Umeek jolasaren bidez ikasten dute, beraz galdetu zeure buruari, zer ikasiko du umeak jostailu honen bitartez?
- Liburuak oparitu eta berarekin batera irakurri. Egunean 15 minutu nahikoak dira irakurzaletasuna lantzeko.
- Ez erosi jostailu pila bat, Gabonetan jostailu berri larregi izaten dituzte. Gauza askorekin elkartzen bazarete, gorde batzuk aurrerago erabiltzeko.
- Aurrekontutxo bat prestatu eta horretara egokitzen saiatu.
- Kontutan izan umearen adina eta trebetasunak jostailua erosterakoan.
- Irakasleen aholkuak kontutan izan, hainbat jostailu umeak garatzea behar izan ditzakeen gaitasunak lantzeko egokiak izan daitezke (puzzleak, dominoak...). Jolastea ezinbestekoa da umeen garapenerako, ez dezagun ahaztu Jean Chateau hezitzaileak esandakoa: *"Jolasten ez dakien umea pentsatzen jakingo ez duen heldua izango da"*.



# etxeko ARTISTA



## ARMIARMA sarea

### ZER BEHAR DUGU?

- ✂ SUKALDEKO PLASTIKO BIRIBILKIA
- ✂ ERROTULAGAILU PERMANENTEA
- ✂ KOLA ZURIA
- ✂ BRILLANTINA



### Lehen urratsa:

Sukaldeko plastiko zati bat hartu eta mahai gainean pegatu.

### Bigarren urratsa:

Errotulagailuarekin armiarma sarea margotu.

### Hirugarren urratsa:



Kola bota margotu duzun armiarman gainean. Saiatu kola dexente botatzen armiarma sarea mehegia izan ez dadin.

### Laugarren urratsa:

Kola sikatu baino lehen brillantina bota eta sikatzen laga.

### Bostgarren urratsa:


Soberan dagoen brillantina berriz ere potera sartu eta kontu handiz armiarma sarea desitsatsi.





# etxeko SUKALDARIA

## Mahats- ZIZAREAK






**Fruta jatea zein garrantzitsua den badakizue, ezta? Errezeta erraz eta gozo honekin, fruta jaten baietz ondo pasatu? Egin proba eta on egin!**

### OSAGIAK

- ✓ 300 gr. mahats
- ✓ Palillo luzeak
- ✓ Txokolatezko pinporta zuriak
- ✓ Txokolate-krema

### NOLA EGIN

- 1.- Garbitu ondo mahatsa.
- 2.- Sartu banan banan mahatsak palilloetan zizare luzeak osatu arte.
- 3.- Moztu palilloaren punta.
- 4.- Begi moduan, lehenengo eta behin, itsatsi burua izango den mahatsean txokolate-pinporta zuri bi, eta gainean, txokolate apur bat, begiaren barrualdea egiteko, eta listo!



## ARIES

Datozen asteetan ez zara haserretuko, etxean lagunduko duzu, lagunak zainduko... Segi horrela, horrek sarritxoren bat ekarriko dizu-eta!

## TAURUS

8 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea berdea izango da. Matematiketan ondo joango zara, baina zaindu gehiago idazketa.

## GEMINIS

Zure kolorea horia izango da eta 6 zenbakiak zortea ekarriko dizu. Gainera, lagun batek ezustekoa emango dizu hemendik gutxira.

## CANCER

Ordenagailuaren aurrean denbora gutxiago pasa beharko zenuke. Egizuz beste gauza batzuk: irten kalera, lagunekin gelditu...

## LEO

Kontuz ibili katarroekin; oso fresko zabilta. Manga motzak armairuan gordetzeko sasoia aspaldi joan da! Kontuz ezularekin.

## VIRGO

5 zenbakiak zortea emango dizu hurrengo egunotan. Zure kolorea, berriz, laranja izango da. Dei misteriotsu bat jaso dezakezu.

## LIBRA

Gauza txikiei ez eman garrantzi larregirik. Baten batek kritika egiten badizu, onera hartu: zure hobe beharrez dihardu. Hori seguru.

## SCORPIUS

Zerbait nahi baduzu, momentuan lortu behar duzu. Gauzak ez dira horrela, txiki. Itxaroten ere jakin behar da. Sari onenak horrela datoz!

## SAGITARIUS

Hori da, hori, burugogorra izatea! Batzuetan besteen gustua ere egin behar da. Erlaxatu zaitetz, eta pentsatu gehiago besteengan.

## CAPRICORNIUS

Eskolara joan, goiz esnatu, goiz oheratu, etxeko lanak, eskolaz kanpokoak... Ez zaitetz kezkatu: Gabonetako oporrak hor bertan ditugu-eta.

## ACUARIUS

3 zenbakiak zortea ekarriko dizu. Gabonetan ez jan larregi; bestela, komunetik irten ezinda amaituko duzu aurtengo urtea-eta!

## PISCIS

Gurasoei kasu gehiago egin behingoz! Zigortuta zaudela eta harritu egiten zara? Lasai, izarrek diote egunotan txintxo-txintxo egon zarela-eta.



[www.poxpolotamokolo.com](http://www.poxpolotamokolo.com)

Bi pailazo horien web orria aurkituko duzue helbide horretan. Bertan sartuz gero, hainbat gauza aurkituko dituzue, besteak beste, zein herritan eta noiz egingo dituzten emanaldiak, argazkiak, bideoak... Horrez gainera, Poxpolo eta Mokolo pailazoen marrazkiak inprimatu eta margotu ahal izango dituzue. Zerbait erosi nahi duzuela? Ba baduzue horretarako aukera ere. Bertan dituzue salgai kamisetak, CDak, DVDak, biserak eta motxilak.

[www.kikikomoko.com](http://www.kikikomoko.com)

Hona hemen beste pailazo dibertigarri batzuen berri izateko beste aukera bat. Oraingoan Kiki, Koko eta Moko pailazoen web orria aurkeztu nahi dizuegu. Klik batekin gauza polit asko aurkituko dituzue. Euren historia ezagutuko duzue, noiz eta nola jaio ziren, zeintzuk diren... Horrez gainera, argazkiak ikusteko aukera ere izango duzue, pailazoen marrazkiak margotu ahal izango dituzue eta euren emanaldien berri jasoko duzue. Gainera, orain arte atera dituzten bideo eta DVDak ere bertan agertzen zaizkizue eta baita horiek nola eskuratu daitezkeen ere.





### MARTA ISPILUAREN AURREAN

Martarentzat sekulako lasaitasuna izan zen gehiago ez entzun behar izatea jendearen galderak, aholkuak, amaren negarrak. Baina, batez ere, guztiz lasaigarria izan zen ez jan behar izatea edo, familiaren aurrean disimulatzeke, jaten zuelako itxurak egitea, ezta botaka egitea ere. Martak, 17 urteko neska batek, bere bizitzako azken hilabeteak gogoratzen ditu ispilu baten aurrean.




### ARRATOITZARRAREN MADARIKAZIOA

Arratoitzar bat agertzen zaio mutiko bati Lur planetan. Arratoitzarra piztia ikaragarria da, zaldi baten besteko tamaina har dezakeena. Charliek eta bere lagun onenak, Lewisek, arratoitzarraren mugak zein diren ikertu beharko dute, hura geldiarazteko... Baina ezusteko beldurgarria izango dute!



### LAPURRAK DABILTA AZOKAN

Maialen eta bere gurasoak artisauak dira: xaboigileak, hain zuzen ere. Azokaz azoka ibiltzen dira eta oraingo honetan, Erdi Aroko Azoka batera doaz. Ezusteko bat ezohiko arazo bilakatuko da artisauentzat: lapurrak dabilta azokan. Zer egin arazo hori konpontzeko? Maialenek ere lagundu nahi du eta horretarako bere gurasoak konbentzitu beharko ditu.



### SUGANDILA-BUZTAN ZOPA

Kandelak hamabi urte bete ditu. Ez daki zergatik, baina, lantzean behin, oraindik gertatu ez diren gauzak iragartzen ditu. Bere buru barruan ikusten ditu, eta, gure neskatila oso-osokoa denez, ezin, bada, esan gabe egon. Tamalez, herrian hasi dira auzokoak Kandelaren aurrean daudela beldur direla esaten, sorgina izango ote den...



### AMETSI TRIPEK HITZ EGITEN DIOTE

Ametsi, ohera sartu eta begiak itxi orduko, tripak hizketan hasten zaizkio; batzuetan, lehoi batek bezaka orroka; beste batzuetan, txerri baten antzera kurrinka, eta askotan, otso baten pare uluka. Hain dira handiak hotsak, ezinezkoa zaiola lokartzea; ezinezkoa.



### LOTSATIA NAIZ, ETA ZER?

Eki oso mutiko lotsatia da eta, hortzetako aparatua jarri diotenetik, are lotsa handiagoa du. Ikasgelako neska bat atsegin du: Lore. Baina ez da ausartzen bere urtebetetzeko txokolatadara gonbidatzera. Loreregana hurbiltzeko Ekik zer ez du asmatuko!

# ARRAUTZA FRIJITUAK

**B**ehin baserritar bat urruneko senide bat bisitatzeraz joan zen. Bidaia luzea zen eta bidean gosetu egin zen. Ostatu batean gelditu eta ostalariak bi arrautza frijitu prestatu zizkion. Rausk! Jan zituen biak eta berriro abiatu zen, bizkor-bizkor. Bidean zihoala zeraz ohartu zen: "Ene! Ez diot bazkaría ordaindu!!".



Hurrengo urtean, berriro joan zen senidea ikustera. Ostatuaren paretik igaro zenean, sartu eta bertan bazkaldtu zuen osteraz ere. Ordaintzeko garaia iritsi zenean, zera esan zion ostalariari:

- "Aizu, iaiz bi arrautza frijitu utzi nizkizun zorretan, kobraidazu aurtengoa eta iaizkoa".

Ostalaria, betoskoa jarrita, hasi zen:

- "Hara! Ba, bi arrautza frijitu haiek jan ez bazenitu txita bihurtuko ziren, eta txitak oilo, eta oiloek arrautza gehiago errungo zuten, eta arrautz haietatik oilo gehiago jaioko ziren... beraz, oilategi osoa zor didazu...".

Elkarrekin haserretu eta epaitegira jotzea erabaki zuten. Emazteak lasai egoteko esan zion baserritarrari, berak di-da konponduko zuela auzia, baina epaiketa hasteko orduan emaztea ez zen inon ageri. Azkenean, ordubetera-edo agertu zen. Epailea haserre zegoen:

- "Nolatan etorri zara ordubete berandu?".

Eta emakumeak:

- "Barkatu jauna, baina soroan ibili naiz jotake patata frijituak nola erein asmatu ezinik".

- "Baina emakumea, nola ereingo dituzu ba frijituriko patatak soroan? Patata frijituak ez dute patata berririk ematen!".

- "Hara!- erantzun zuen andreak-, horretan patatak eta arrautzak berdin-berdinak dira: arrautza frijituak ere ez dute txitarik ematen".

Eta halaxe libratu zen baserritarra emaztearen argitasunari esker.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**

# GALTXAGORRI

**G**altza gorritz jantzitako gizontxo txiki-  
txikiak dira galtxagorriak. Bizkorrak,  
biziak, onak eta jostalariak dira jeinu  
laguntzaile hauek. Jabeak orratzontzi edo  
kutxatxo batean izaten ditu, eta bere  
esanetara daude edozein lanetan laguntzeko,  
lan hori sinesgaitza izanda ere. Bizileku duten  
orratzontzia irekitzean, nagusiaren buru  
inguruan biraka hasten dira zer egitea nahi  
duen etengabe galdezka. Jabeak agindutako  
lanak egiten egoten dira gauzez, eta, etxekoan  
pozerako, hurrengo goizerako amaituta izaten  
dituzte lanak. San Joan bezperako gauetan, sasi  
baten gainean, orratzontzia edo bestelako ontzi  
bat utziz gero, Galtxagorriak bertara etortzen  
dira, eta haien jabe egiten zara.  
Igarleek, aztiak edo petrikiloek sinesgaitza den  
zerbait egiten dutenean, esan ohi da  
Galtxagorrien laguntza izan dutela.



Eskatu aitari edo  
amari ipuin hau gaur  
gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



Bizkaiko Kortezubi herrian kontatzen denez,  
gizon batek Galtxagorri batzuk erosi omen  
zituen behar batzuk egiteko. Orratzontzia ireki  
eta lan bat agindu zien, eta haien berehala  
egin zuten. Gero beste lan bat egiteko esan  
zuen, eta baita egin ere hauek. Hirugarren  
eskakizuna bete ondoren, Galtxagorriak zer  
egin behar zuten galdetu zioten nagusiarri.  
Nagusiak, orduan, gizontxo txikiekin nazkatuta,  
galbahe batean ura ekartzeko agindu zien.  
Lan hau ezin izan zuten burutu, erretiratu  
egin omen ziren.

Zarautzen, Galtxagorrien jabe zen baserritar  
batek idi-proba batean hartu omen zuen parte.  
Bere lehiakideen idiek harria aiseago zeramatela  
ikustean, atera Galtxagorriak eta laguntza  
eskatu zien. Horrela, haren idiek aurreratu egin  
zituzten aurkariak, eta irabazi egin zuen  
apustua baserritarrak.

# GALTXAGOR.Ri



zu margolari!